

~~Boletín Información Municipal~~
nº 4, Ay. Susa. Nov 1988

Kultur Etxe baten egitasmoa aurrera atera eta gauzatzeko.

Intxaurrondo ere, baserri izandako eraiketa batetan kokatzen da Kultur Etxea. Gainerantzeko kasuetan bezala, hau ere baserri batetan baserriz osatutako inguru bat zen. Urteak igaro ahala, baserri hauek funtzio desberdinak bete dituzte, Donostiaren beharren eta industrializapen prozesuaren arabera.

Gaur egun, Intxaurrondo Kultur Etxea den baserria horixe zen hasieran, baserri bat, erabilkera desberdinak izan baditu ere: taberna eta upategia, zaldi-ibilgailuen alokairua, Artzak-Ortzeok elkartearen egoitza... beti ere etxebizitzarako une bat gordetzen zuelarik. Letaman goma-fabrikarena izan zen bere azkeneko erabilkera, eta ondoren hutsik geratu zen, Intxaurrondoko gazte talde bat kultur ekintzarako erabiltzen hasi arte. 1.984ean erosi egin zuen Donostiako Udalak, bertan gaurręungo Intxaurrondo Kultur Etxea kokatzeko.